



ORMAIZTEGIKO
UDALA

**ORMAIZTEGIKO UDALEKO ADMINISTRAZI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA
PROZESUAREN EPAIMAHAIAREN 3. BILKURAREN AKTA**

Eguna: 2024ko abenduaren 18a.

Ordua: 13:00

Tokia: "Eskola zaharrak" Gizarte Etxea.

BERTARATUAK:

Lehendakaria: Martin Iparragirre Mujika jauna

Bokalak:

Miren Jasone Telleria Arrizabalaga andrea

Amaia Arotzena Altuna andrea

Idazkaria: Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea andrea

BERTARATU EZ DIRENAK:

Gemma Sarasua Gaztelumendi andrea (arrazoituta).

LEHEN PUNTUA: AURREKO AKTA ONARTZEA.

Idazkariak hitza hartu eta galdetu du ea epaimahaikide guztiek jaso duten emailer bidali zitzaizen akta proposamena. Erantzuna baiezkoa izan da. Ondoren, aukera eman zaie oharrak edo zuzenketa eskariak aurkezteko baina ez da horrelakorik izan. Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

Bilkurari hasiera eman zaio, honako gai zerrenda honen arabera:

- Azterketen emaitzak adostea eta argitaratzea.
- Hirugarren ariketa egiteko IVAP-i eguna jartzeko eskatzea.
- Erreguak eta galderak.

BIGARREN PUNTUA: AZTERKETEN EMAITZAK ADOSTEA ETA ARGITARATZEA.

Epaimahaikideek hautagai bakoitzaren bi probak irakurri dituzte eta bakoitzak bere puntuazio proposamena aukeztu eta arrazoitu du. Ondoren, epaimahai osoak azterketak banan-banan berraztertu ditu, kontsentsuz emaitza bakoitza erabakiz.

Hori horrela, eta eztabaida amaiturik, bozketari ekin zaio, eta batzordekide guztien aldeko botoarekin, epaimahaiak ahobatez zera

ERABAKI DU





LEHENA: Bigarren ariketaren emaitzak argitaratzea.

2. ARIKETAREN EMAITZAK

Erregistroko sarrera zenbakia	Nortasun Agiria	GAINDITU DU	EMAITZA (Gehienez, 40 puntu)
385	***0287**	BAI	31,66
399	***3328**	BAI	38,66
407	***5555**	BAI	37,33

BIGARRENA: Interesatuei hiru laneguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko (abenduaren 20tik 26ra, biak barne).

HIRUGARREN PUNTUA: HIRUGARREN AZTERKETA EGITEKO IVAP-i EGUNA JARTZEKO ESKATZEA

Idazkariak hitza hartu du eta adierazi 3. Ariketako proba psikoteknikoak egiteko IVAP-i laguntza eskatu zaiola, bai gaitasun proben kasuan bai nortasun probei dagokienean.

Ariketa egiteko eguna IVAP-ekin adostu behar denez, horren menpe geratzen da Epaimahaiaren jarduna.

Laugarren ariketari dagokionean, idazkariak esan du, hautagai guztiek egiaztatu dutenez 3. Hizkuntza Eskakizuna (3.HE), ez dagoela zertan IVAP-i azterketa egiteko eskatu.

Epaimahaikideak ados agertu dira eta ahobatez zera

ERABAKI DUTE

LEHENA: IVAP-i 3. Ariketa egiteko eguna jartzeko eskatzea.

BIGARRENA: IVAP-i jakinaraztea euskara probarik egin beharrik ez dela izango

LAUGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkeztu.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, Lehendakariak bilkura amaitutzat eman du, goizeko 13:50 orduak direnean, eta nik, Idazkaria naizen honek, gertatutakoaren konstantzia gera dadin, akta hau luzatzen dut, bertan jasotakoa egiazko dela fede emanez.





ORMAIZTEGIKO
UDALA

Ormaiztegin, 2024ko abenduaren 19an.

Epaimahaiko lehendakariak

Epaimahaiko idazkariak

